

NEIKER

MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE



EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE

Esnetarako behi-aziendetan antibiotikoak zuhurtziaz erabiltzeko gomendioak

**ABELTZAINAREN
ROLA**

2021. urtea




Argazkia Eneritz Uriarte

Bakterioak erresistente egin ez daitezen antibiotikoen erabilera egokia funtsezkoa da

Infekzio batzuen tratamendurako antibiotikoen erabilera beharrezkoa da batzuetan, animalien osasuna ziurtatu, eta modu honetan animalien ongizatea eta elikagai seguruen ekoizpena bermatzeko. Aitzitik, ez baditugu antibiotikoak zuzen erabiltzen, behar ez direnean erabiltzen ditugulako, ez dugulako antibiotiko egokia erabiltzen edo ez dugulako dosi egokia eta behar den denboran jartzen, lortzen duguna da bakterio batzuk erresistente

bihurtzea eta, hortaz, tratamenduek ez funtzionatzea.

Antibiotikoak gehiegi edo modu desegokian erabiltzearen ondorioz, bai pertsonengan, bai animaliengan, gero eta gehiago dira giza medikuntzan eta albaitaritzan eskuragarri dauden antibiotiko askoren aurrean erresistenteak diren bakterio patogenoek eragindako infekzioak.





Argazkia: Jon Gutiérrez

Arazo hori geldiarazteko, garrantzitsua da zure albaitariaren gomendioak jarraitzea.

Gaixotasunak prebenitzen edo horien ondorioak minimizatzen laguntzen duten praktika onak aplikatzen badituzu, antibiotikoak erabiltzeko beharra murriztea lortuko duzu, eta ekoizpen optimoak lortuko dituzu.

Antibiotikoak funtsezkoak dira osasun publikoa eta animalien osasuna babesteko

- Antibiotikoen **erabilera desegokiak bakterio erresistenteak** agertzen laguntzen du.
- Antibiotikoekiko erresistenteak diren bakterioak agertzeak haien **eraginkortasuna arriskuan** jartzen du.
- Bakterio erresistenteen agerpena **gaixotasunak prebenitzeko eta kontrolatzeko** praktika egokiekin mugatu daiteke.
- Behar izanez gero, antibiotikoak **arduraz erabili behar dira**, eraginkorrak izan daitezen.



Gaixotasunak murrizten badira, antibiotikoak erabiltzeko beharra ere murriztuko da.

Animalien osasun egoera ona funtsezkoa da haien ongizatea bermatzeko, errendimendu optimoa lortzeko eta elikagai seguruak ekoizteko.


Zure ustategirako Osasun Plan espezifiko bat ezartzeak aziendaren osasun egoera orokorra hobetzen lagunduko du



Ustategiko Osasun Planak zure ustategirako berariazko erabilera-estrategia on baterako oinarriak ezartzen ditu, azken helburua gaixotasunak prebenitzea edo haien ondorioak gutxitzea izanik

Planak hauek jaso behar ditu:

- Ustategian eragina duten edo izan dezaketen infekzio eta gaixotasun nagusiak identifikatzea.
- Prebentziorako protokolo espezifikoak definitzea:
 - Biosegurtasuna eta higiena.
 - Sistema immunea indartzea: Txertaketa Plana, oritza ondo hartzea.
- Gaixotasun bakoitza detektatzeko, tratatzeko eta kontrolatzeko estrategien deskribapena.
- Animalien osasuna hobetzeko helburuak identifikatzea.
- Osasun adierazleen eta tratamenduen erregistroak aldizka jasotzeko eta berrikusteko sistema bat ezartzea.
- Adierazleen jarraipena eta ekintza zuzentzaileen plana.



Neurriak

1 Zure al baitariarekin Osasun Plan bat egin

- Ziurtatu zure ustategirako Osasun Plan espezifiko bat duzula.
- Inplementatu zure Osasun Planean ezarritako protokoloak:
 - biosegurtasun eta higiene protokoloak
 - oritza emateko protokoloak
 - Txertaketa Plana (amentzat zein txahalentzat)
- Mamitisaren kontrako lehortze-terapia selektiboa egiteko aukera ebaluatu

2 Ziurtatu zure animalien osasuna eta ongizatea

- Aztertu animaliak egunero, gaixo daudenak identifikatzeko.
- Ziurtatu gaixo dauden animaliak azkar eta egoki artatzen direla, eta, beharrezkoa bada, galdetu al baitariari.
- Bereizi gaixo dauden animaliak taldeko gainerakoetatik, eta izan daitezela jezten azkenak.
- Jarraitu Osasun Planean gaixotasunen aurrean jarduteko zehaztutako eta zure al baitariak gomendatutako protokoloak.
- Ziurtatu animalien nutrizio eskakizunak ekoizpen-fase guztietan.



Helburuak

- Gaixotasunak prebenitzea edo horien ondorioak minimizatzea.
- Ekoizpen optimoak lortzea.
- Antibiotikoak erabiltzeko beharra murriztea.

- Gaixotasunen detekzio goiztiarra.
- Gaixotasuna barreiatzeko arriskua minimizatzea.
- Animalia osasuntsuak izatea.
- Minaren eta gaixotasunen prebentzioa.



Esnetarako behi-aziendetan antibiotikoak zuhurtziaz erabiltzeko gomendioak. ABELTZAINAREN ROLA

Neurriak

3 Erabili antibiotikoak zuzen

- Erabili antibiotikoak albaitariaren aginduz bakarrik.
- Zure albaitariaren jarraibideak jarraitu eta tratamenduaren dosi eta iraupen egokiak aplikatu.
- Zaindu itxaronaldiak: bereizi tratamenduan dauden animalien esnea eta deuseztatu esne hori behar bezala.
- Gorde medikamentuak behar bezala eta baimendun kudeatzaile baten bitartez soberakinak deuseztatu.

4 Jaso datuak eta berrikusi erregistroak

- Erregistratu tratamendu guztiak: belarritakoa, tratamenduaren hasiera eta amaiera data, dosia eta indikazioa.
- Erregistratu gaixotasunak eta hildakoen arrazoiak.
- Berrikusi aldizka zure albaitariarekin erregistro guztiak eta egokitu zure Osasun Plana etengabeko hobekuntza lortzeko.




Helburuak

- **Gaixotasuna sendatzen duten tratamendu eraginkorrak izatea.**
- **Esnetan antibiotikoen hondakinak saihestea.**
- **Pertsona, animalia eta ingurumenarentzako arriskuak minimizatzea.**

- **Etengabeko hobekuntza.**
- **Tratamendu antibiotikoak:**
 - Birpentsatu,
 - Ordeztu,
 - Murriztu

Antibiotikoak zuhurtziaz erabiltzeko jarraibideak



Ziurtatu animalien osasun ona

- Ziurtatu zure ustategirako Osasun Plan espezifiko bat duzula.
- Aplikatu maneiuko praktika onak.

Egin lan gaixotasunak goiz detektatzeko


- Aztertu animaliak egunero.
- Ziurtatu gaixo dauden animaliak azkar eta egoki artatzen direla, eta, beharrezkoa bada, galdetu albaitariari.
- Bereizi gaixo dauden animaliak taldeko gainerakoetatik, eta izan daitezela jezten azkenak.

Erabili antibiotikoak zuzen

- Albaitariak aginduta bakarrik: "Ahal den gutxien, behar bezainbeste".
- Zure albaitariaren jarraibideak jarraitu eta tratamenduaren dosi eta iraupen egokiak aplikatu: "Ez gehiago, ez gutxiago".

Eraman gaixotasunen eta tratamenduen erregistro bat,

eta aldian-aldian berrikusi albaitariarekin, Osasun Planaren barruan.



Abeltzainak ahal duen guztia egin behar du bere animalien osasuna eta ongizatea bermatzeko.

Abeltzainak maneiuko praktika onak aplikatu behar ditu antibiotikoak erabiltzeko beharra murrizteko; antibiotikoak ezin dira inoiz erabili maneiuko praktika onen ordezkoko gisa.

NEIKER₁

MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

